



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

IX. legegintzaldia

Iruña, 2015eko abenduaren 30a

48. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E SAILA:

##### **Jabeldurak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da sareko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako plan bat taxutu dezan. Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkeztu du (3. or.).
- Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Legebiltzarreko Erregelamenduan galderei erantzuteko ezarritako epeak bete ditzan. Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztu du (4. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie San Adriango Iberemba enpresaren zuzendaritzari eta langile-plantillari. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babesa adierazten baitie pertsona transexualei eta beren familiei, eta bat egiten baitu Alanen erailketa soziala, Bartzelonan gertatua, gaitzesteko manifestuarekin. Eledunen Batzarrak onetsia (5. or.).

#### F SAILA:

##### **Galderak:**

- Galdera, jakiteko zer arrazoi izan duen Nafarroako Gobernuak erabakitzeko Espainiako Errege-Erreginek ez dutela 2016ko “Vianako Printzea” Saria emateko ekitaldian parte hartuko, aipatu sari-banaketaren tokia aldatzeko eta Nafarroako Errege-Erreginen omenaldia Leireko Monasterioan ez egiteko. Ana Beltrán Villalba andreak egin du (6. or.).
- Galdera, eskola-curriculumetik erlijioaren ikasgaia kentzeari buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuaren erabilera dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa. Alberto Catalán Higuera jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, osasun zerbitzuak eta euskararen erabilera direla-eta Nafarroako zenbait udalek Europako Parlamentuari eginiko eskariari buruzkoa. Dabid Anaut Peña jaunak egin du (8. or.).

#### G SAILA:

##### **Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Eduardo Santos Itoiz jaunak foru parlamentari karguari uko egitea (9. or.).

H SAILA:

**Bestelako testu arau-emaileak:**

- 2/2015 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena (10. or.).
- 3/2015 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legea aldatzen duena. Haren bidez, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautu ziren (12. or.).
- 1/2015 Foru Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen dituen (14. or.).

---

**E saila:**  
**JABELDURAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da sarezko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako plan bat taxutu dezan.**

### *NAFARROAKO ALDERDI SOZIALISTA PARLAMENTU-TALDEAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernua premiatzen baita sarezko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako plan bat taxutu dezan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Lehendakaritzako, Funtzio Publiko-ko, Barneko eta Justiziako Batzordean izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista parlamentu-taldeko eledun María Chivite Navascués andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, batzordean eztabaidatzeko eta bozkatzeko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernua premiatzen da "Sarezko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako Plan" bat taxutu dezan.

Nafarroako Gobernuak dokumentazio-kantitate itzela sortzen du egunero. Jakina, funts publikoak erabilia prestatzen da informazio hori guztia. Hortaz, testu, irudi, bideo eta gainontzeko formatu horien guztien titulartasuna herritarrena eta enpresa da, horiek direlako administrazioa mantentzeko finantza-ekarpenen arduradun nagusiak.

Betidanik, Nafarroako Gobernuko departamentuek txostenak, azterlanak, planak, analisiak, estatistikak eta askotariko lanak egin dituzte, berrerabil daitezkeenak, ezagutza sortuz eta, horrenbestez, aberastasuna sortuz ekonomiaren, kulturaren eta ikerkuntzaren arloetan.

Dokumentaziorik gehiena suntsitu, galdu edo desaxolaz tratatu dela jabetuta, uste dugu biltegiatze-formatu berriek eta artxibo digitalek aukera ematen dutela dokumentazioa hobeki kontserbatzeko. Hartara, orain beharrezkoa da arretarik eta arau-mailarik handiena jartzea, ziurtatze aldera dokumentazio berria formatu berrerabilgarrietan arduraz artxibatzen dela, horren kontsulta publikoa eta erabilera unibertsala errazteko.

Ezagutza publikoa herritarrei, enpresei eta gizarte eragileei dagokie. Horiek dira, Nafarroako Gobernuak egunegunegun sortutako dokumentazioa lagun, aberastasuna sortu behar dutenak kulturaren, ekonomiaren, gizartearen eta ikerkuntzaren alorretan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkeztu dugu:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernua premiatzen du "Sarezko ezagutza publiko, eskuragarri eta unibertsalerako Plan" bat taxutu dezan, formatu berrerabilgarrietan taxutu ere, Nafarroako Gobernuak egun sortzen dituen eta iraganetik baliagarri dauden ezagutza-dukuei buruzkoa, eta horretarako eskueran ipin ditzan herritarrei, ikertzaileei, enpresei nahiz ekintzaileei ezagutza ekar liezaieketen azterlan, liburu, ikerketa, irudi, bideo, testu eta beste edozein motatako eduki guztiak.

Iruñean, 2015eko abenduaren 22an

Eleduna: María Chivite Navascués

## **Mozioa. Horren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da Legebiltzarreko Erregelamenduan galderei erantzuteko ezarritako epeak bete ditzan.**

### *ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK AURKEZTU DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkezturiko mozioa, zeinaren bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen baita Legebiltzarreko Erregelamenduan galderei erantzuteko ezarritako epeak bete ditzan.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Mozioa Osoko Bilkuran izapidetzea, eta zuzenketak aurkezteko epea bukatzea eztabaidari ekiteko bilkura-egunaren aurrekoaren eguerdiko hamabietan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **MOZIOAREN TESTUA**

Nafarroako Parlamentuko Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako mozio hau aurkeztu du, Osoko Bilkuran eztabaidatzeko eta onesteko. Mozioaren bidez, Nafarroako Gobernuak premiatzen da zorrotz bete ditzan Legebiltzarreko Erregelamenduak galderei erantzuteko ezarritako epeak, bai galdera idatziei bai informazio eskariei dagokienez.

Parlamentuko jarduera baldintzarik egokienean egin ahal izateko, beharrezkoa da Nafarroako Gobernuaren lankidetzak. Parlamentariok herritarren ordezkariak gara, eta Gobernuak parlamentutaldeen eskatutako informazioa eman beharra dauka, haiek hala eskatzen dutenean.

Legegintzaldi honetan atzerapen handi samarra gertatzen ari da Foru exekutiboari egindako idatzizko galderei eta informazio eskaerei erantzun bat ematerakoan; alegia, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduak ezarritako epea gaindituta jasotzen dira erantzun asko.

Beharrezkoa da azkar eta ezarritako epean erantzutea galdera eta informazio eskaera horiei, Parlamentuko jarduera behar bezala garatzeko, Legebiltzarra osatzen duten talde guztien eta, azken finean, nafar herritarren mesedetan.

Hori dela-eta, ondoko erabaki proposamena aurkezten dugu:

– Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Gobernuak premiatzen du zorrotz bete ditzan Legebiltzarreko Erregelamenduak galderei erantzuteko ezarritako epeak, bai galdera idatziei bai informazio eskariei dagokienez, Legebiltzar hau osatzen duten taldeen parlamentu-jarduera azkartu eta errazte aldera.

Iruñean, 2015eko abenduaren 22an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten baitie San Adriango Iberemba enpresaren zuzendaritzari eta langile-plantillari.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“– Nafarroako Parlamentuak bere elkartasuna adierazten die Iberemba enpresaren zuzendaritzari eta langile-plantillari, San Adriango bere instalazioetan izandako sute larria dela-eta.

– Nafarroako Parlamentuak bere borondatea adierazten du, enpresak bere eguneroko jarduna

berreskura dezan eta lanpostuak mantentzea bermatzeko beharrezkoa den lankidetzaren ematekoa.

– Nafarroako Parlamentuaren nahia da Nafarroako Gobernuak Iberemba enpresaren esku beharrezkoak diren baliabideak jar ditzan, enpresa-jardueraren jarraitutasuna bermatzeko”

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak bere babes adierazten baitie pertsona transexualei eta beren familiei, eta bat egiten baitu Alanen erailketa soziala, Bartzelonan gertatua, gaitzesteko manifestuarekin.**

### *ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Gure lehendabiziko gogapena Alanen, bere identitatearen arabera bizi zen Bartzelonako 17 urteko mutiko transexualaren familiarentzat eta lagunentzat da. Nortasun agiri nazional estreinatutako berriarekin ospatu behar zituen lehendabiziko Gabonak ziren harentzat. Bai eta azkenak ere, zoritxarrez. Eskola-esparruko transfobiak Alan akabatu du. Transfobia erruz pairatu zuen bere bizitzan zehar, eta bere amak dioskunez, gertatutakoa ez da pertsona bakar baten erantzukizuna; izan ere, urteetan zehar egunero norbait arduratu zen Alanek jakin zezan bere bestelakotasuna ez zela onartua. Denen artean hil zuten. Ez da suizidio bat izan, erailketa sozial bat baizik.

2. Nafarroako Parlamentuak bere babes osoa adierazten die pertsona transexualei eta haien familiei, Pertsona transexualak genero-nortasunagatik ez baztertzeari eta haien eskubideak aitortzeari buruzko azaroaren 19ko 12/2009 Foru Legean jasotzen den moduan.

3. Berretsi egiten dugu adingabe transexualak babesten jarraitu beharra dagoela, haien sexu-identitateak aitortuz eta errespetatuz, eta hartu beharreko neurriak hartuz transfobia esparru guztietan eragozteko; izan ere, pertsona transexualek eta haien familiek egunero pairatzen dituzte gizartearen nahiz erakundearen mikroindarkeria-ekintzak, zeinak gehitu egiten baitzaizkie egoera hori bizitzeak berez dakartzan eragozpenei, zama jasanezin bat bihurtzeraino.

4. Nafarroako Parlamentuaren ustez, botere publikoei, hezkuntza- eta osasun-administrazioei, erregistro zibilen arduradunei eta gizarte osoari dagokie lanean jarraitzea bestelakotasunak aintzat hartuko dituen berdintasunezko gizarte bat eraikitzeko, bizikidetasuna erabatekoa izan dadin pertsona guztientzat.

5. Nafarroako Parlamentuak bat egiten du Alanen erailketa soziala gaitzesteko manifestuarekin”

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, jakiteko zer arrazoi izan duen Nafarroako Gobernuak erabakitzekeo Espainiako Errege-Erreginek ez dutela 2016ko “Vianako Printzea” Saria emateko ekitaldian parte hartuko, aipatu sari-banaketaren tokia aldatzeko eta Nafarroako Errege-Erreginen omenaldia Leireko Monasterioan ez egiteko.**

*ANA BELTRÁN VILLALBA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ana Beltrán Villalba andreak aurkeztutako galdera, jakitekoa zer arrazoi izan duen Nafarroako Gobernuak erabakitzekeo Espainiako Errege-Erreginek ez dutela 2016ko “Vianako Printzea” Saria emateko ekitaldian parte hartuko, aipatu sari-banaketaren tokia aldatzeko eta Nafarroako Errege-Erreginen omenaldia Leireko Monasterioan ez egiteko.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Popularreko foru parlamentarien elkarteko parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak 2016ko “Vianako Printzea” Kulturaren Saria dela-eta erabaki du Erriberri emanen dela saria, Leiren eman ordez, eta Espainiako Errege Etxearen ordezkariak ez dutela parte hartuko saria emateko ekitaldian. Nafarroako Gobernuak zer arrazoi izan du erabakitzekeo Espainiako Errege-Erreginak bertan egon gabe emanen dela 2016ko “Vianako Printzea” Kulturaren Saria eta sari-banaketaren tokia aldatu eta Leireko monasterioan Nafarroako Errege-Erreginen omenaldirik ez egiteko?

Iruñean, 2015eko abenduaren 23an

Foru parlamentaria: Ana Beltrán Villalba

## **Galdera, eskola-curriculumetik erlijioaren ikasgaia kentzeari buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, eskola-curriculumetik erlijioaren ikasgaia kentzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Abenduaren 16ko agerraldian, Hezkuntzako kontseilariari informazioa eskatu zitzaion Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendariekin azaroaren 17an izandako bileran erlijioaren ikasgaia dela-eta egindako adierazpenei buruz.

Hori dela-eta, honako galdera honi idatziz erantzutea nahi dugu:

Kontseilariak nola egingen du eskola-curriculumetik erlijioaren ikasgaia kentzeko?

Corellan, 2015eko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuaren erabilera dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.**

*ALBERTO CATALÁN HIGUERAS JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Alberto Catalán Higuera jaunak aurkeztutako galdera, Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuaren erabilera dela-eta hartu beharreko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Unión del Pueblo Navarro parlamentu taldeari atxikitako eta Nafarroako Gorteetako kide Alberto Catalán Higuera jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 188. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoaren babesean, honako galdera hauek aurkeztu ditu, idatziz erantzun dakizkion:

Abenduaren 16ko agerraldian, Hezkuntzako kontseilariari informazioa eskatu zitzaion Haur eta Lehen Hezkuntzako zuzendariekin azaroaren 17an izandako bileran egindako adierazpenei buruz, Nafarroako ikastetxeetan erabiltzen diren eta Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatuko ez luketen testuliburuaren gainekoak.

Hori dela-eta, honako galderari idatziz erantzutea nahi dugu:

Hezkuntza Departamentuak zer neurri hartuko ditu Nafarroaren errealitate instituzionala errespetatzen ez duten testuliburuak erabiltzen diren ikastetxeen kasuak gertatzen direnean?

Testuliburuaren doakotasun-programan onartu egingen al da Nafarroaren errealitate instituzionala

errespetatzen ez duten testuliburuak erabiltzea ikastetxeek?

Corellan, 2015eko abenduaren 18an

Foru parlamentaria: Alberto Catalán Higuera

## **Galdera, osasun zerbitzuak eta euskararen erabilera direla-eta Nafarroako zenbait udalek Europako Parlamentuari eginiko eskariari buruzkoa.**

### *DABID ANAUT PEÑA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Dabid Anaut Peña jaunak aurkeztutako galdera, osasun zerbitzuak eta euskararen erabilera direla-eta Nafarroako zenbait udalek Europako Parlamentuari eginiko eskariari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

### **GALDERAREN TESTUA**

Dabid Anaut Peñak, EH Bildu Nafarroa parlamentu-taldeko Foru Parlamentariak, Legebiltzarreko Erregelamenduak adierazten duen bezala, ondoko galdera idatzia egiten dio Nafarroako Gobernuari:

2014. urtean zenbait herritarrek eskaera bat egin zioten Europako Parlamentuko Eskari Batzordeari, 0521/2014 zenbakidun eskaria hain zuzen ere, Nafarroako zenbait udalerritan –Baztanen, Urdazubin eta Zugarramurdin, hain zuzen ere– eskaintzen diren osasun zerbitzuen eta euskararen erabileraren inguruan.

Aurkeztutako idatzi horretan azaltzen denez, udalerririk horietako herritar euskaldunak diskriminatuta daude, osasun zerbitzuetako langileetako askok euskaraz ez dakielako. Egoera horren ondorioz herritarren zenbait eskubide urratzen dira: administrazioarekin norberaren hizkuntza erabiltzeko eskubidea eta osasunaren babeserako eskubidea, besteak beste.

Ba al du Nafarroako Gobernuak eskaera horren eta eskaerak izan duen erantzunaren berri? Zein dira Nafarroako Gobernuak herritar nafar horien eskaera horren inguruan egin ditzakeen urratsak?

Iruñean, 2015eko abenduaren 18an

Foru Parlamentaria: Dabid Anaut Peña



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

### **Eduardo Santos Itoiz jaunak foru parlamentari karguari uko egitea.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 29an eginiko bilkuran, honako erabaki hau hartu zuen:

Foru parlamentari Eduardo Santos Itoiz jaunak aurkezturiko uko-idazkia dela-eta, honako hau ERABAKI DA:

**1.** Jasotzat ematea Eduardo Santos Itoiz jaunak aurkeztutako idazkia, uko egitekoa foru parlamentari izaerari, zeina lortu baitzuen martxoaren

30eko 2/2015 Foru Dekretuaren bidez deituriko Nafarroako Parlamenturako hauteskundeetan (62. zenbakiko NAO, 2015eko martxoaren 31koa), Podemos-Ahal Dugu hautagaitzaren barruan.

**2.** Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin.

Iruñean, 2015eko abenduaren 29an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

---

**H saila:**  
**BESTELAKO TESTU ARAU-EMAILEAK**

---

**2/2015 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik abenduaren 16ko 2/2015 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea abenduaren 16ko 2/2015 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzen duena.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**2/2015 Legegintzako Foru Dekretua,  
abenduaren 16koa, Tributu  
Harmonizazioari buruzkoa, Balio  
Erantsiaren gaineko Zergari buruzko  
abenduaren 30eko 19/1992 Foru  
Legea aldatzen duena**

**ZIOEN AZALPENA**

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu araubidea Estatuko tributu araubide orokorarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, lege testu horren 32. artikulua xedatzen duenez, Nafarroak, balio erantsiaren gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean-unean indarra duten oinarrizko printzipio, funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitorpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlatuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legeak puntualki aldatu zuen Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea, hura Europar Batasuneko araudira egokitzeko asmoz, ondasunak Europar Batasunetik kanpo ondasunak esportatzearekin lotura zuzena duten zerbitzuak ematea salbuesteari dagokionez.

Bestalde, 250.000 eurora igo zuen ondasunak eskuratu eta inportatzeko gehieneko muga, nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide berezia aplikatzeko.

Horrenbestez, Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 28ko 37/1992 Legea aldatu denez, beharrezkoa da Tributu Harmoniza-

zioari buruzko Legegintzako Foru Dekretu hau ematea Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legea aldatzeko, zerga horri dagokionez, Foru Komunitatean aplikatu daitezkeen Estatuan indarra duten arau substantibo eta formal berberak.

Gainera, beharrezkoa da Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen 47.1 artikuluko laugarren eta bosgarren paragrafoak aldatzea, zehazteko ezen, kenkariaren araubidean, enpresaren edo lanbidearen jarduerako sektore berezietan, araubide erraztuaren bidez zergak ordaintzen dituzten jarduerak ez dutela kenkarirako eskubidea sortzen, salbu eta foru lege horren 68.5.3 artikuluan aurreikusitako ondasunak eskuratzean jasandako kuota badira.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2015eko abenduaren 16an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko Foru Legea aldatzea.

Balio Erantsiaren gaineko Zergari buruzko abenduaren 30eko 19/1992 Foru Legearen agindu hauek aldatu dira, eta ondoren azaldu bezala gelditu:

Bat. 18.5 a) artikulua.

“a) Honako hauei ematea: esportazio horiek egiten dituztenei, ondasunen hartzaileei, haien aduanako ordezkariari edo batzuen edo besteen kontura ari diren garraio-kudeatzaileei eta kontsignatarioei.”

Bi. 47.1 artikulua, laugarren eta bosgarren paragrafoak.

“Ondasunak edo zerbitzuak hainbat jarduerako sektore berezietan batera erabiltzeko eskuratu edo inportatzen direnean, 50. artikuluko 2. idatz-zatian eta hurrengoetan ezarritakoa aplikatuko da eskurapen edo inportazio horietan jasandako kuota zer kenkari portzentaje aplikatzen ahal zaien zehazteko; horretarako, sektore berezitu bakoitzean egindako eragiketak kontatuko dira, eta kontuan hartuko da ez dutela kenkarirako eskubiderik sortzen nekazaritzaren, abeltzaintzaren eta arrantzaren araubide bereziko edo baliokidetasun-errekarguaren araubide bereziko eragiketek, ezta araubide erraztukoek ere, kenkari portzentajea aplikatzen zaienean 68.5.3 artikuluan jasotakoez bestelako ondasunei edo zerbitzuei.

Aurreko lerroaldean xedatutakoaren salbuespen gisa, entitate taldearen jarduerako sektore berezitan egindako eragiketak ez dira kontuan hartuko.”

Hiru. 69.2.6 artikulua.

“6.a Aurreko urtean, enpresaburuek edo profesionalak beren enpresa edo lanbide jarduerako guztietarako eskuratu edo inportatutako ondasun eta zerbitzuak, ibilgetuko elementuei buruzkoak kenduta, 250.000 eurotik gorakoak direnean, balio erantsiaren gaineko zerga kanpo.

Aurreko urtean jardueraren bat hasi bada, eskuratu edo inportatutakoaren zenbatekoa urtean sartuko da.”

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek 2016ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra, 1. eta 2. idatz-zatian xedatutakoak izan ezik, 2015eko urtarrilaren 1etik aurrera izanen baititu ondorioak.

**3/2015 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legea aldatzen duena. Haren bidez, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautu ziren.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Ikusirik abenduaren 16ko 3/2015 Legegintzako Foru Dekretua, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legea aldatzen duena, zeinaren bidez energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautu baitziren, eta kontuan harturik Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko 14/2004 Foru Legearen 54. artikuluan eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 162. artikuluan xedatutakoa, hona ERABAKIA:

**1.** Adieraztea abenduaren 16ko 3/2015 Legegintzako Foru Dekretuaren berri izan duela, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legea aldatzen duena, zeinaren bidez energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautu baitziren.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

**3/2015 Legegintzako Foru Dekretua, abenduaren 16koa, Tributu Harmonizazioari buruzkoa, martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legea aldatzen duena. Haren bidez, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautu ziren.**

ZIOEN AZALPENA

Estatuaren eta Nafarroako Foru Komunitatearen arteko Hitzarmen Ekonomikoaren I. tituluan, Nafarroako tributu araubidea Estatuko tributu araubide orokorrarekin harmonizatzeko irizpideak arautzen dira.

Esparru horretan, lege testu horren 36. artikulua xedatzen duenez, Nafarroak, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren esparruan bere tributu-ahalmena erabiliz, Estatuan unean unean indarra duten funtsezko arau eta arau formal berak aplikatu behar ditu; hala ere, aitortpena eta diru-sarrerak egiteko bere ereduak onesten ahalko ditu.

Bestetik, Nafarroako Gobernuari eta Lehendakariari buruzko abenduaren 3ko 14/2004 Foru Legeak, 54.1 artikuluan, Nafarroako Gobernuaren araugintzarako ahalmena erregulatzean ezartzen duenez, tributu-araubide erkidearen aldaketa batek behartzen badu, Hitzarmen Ekonomikoan ezarritakoarekin bat, Estatuan indarra duten arau funtsezko eta formazko berberak Foru Komunitatean aplikatzera, Nafarroako Gobernuak tributu arloko foru legeak aldatzeko behar diren foru lege mailako arauak eman ditzake, Nafarroako Parlamentuak eskuordeturik. Aipatu 14/2004 Foru Legearen 54.2 artikuluan xedatutakoari jarraikiz, Nafarroako Gobernuaren xedapen horiei, aipatu legegintzarako eskuordetzearen ondorio direnean, "tributu harmonizaziorako legegintzako foru dekretu" izena emanen zaie.

2016ko Estatuko Aurrekontu Orokorrei buruzko urriaren 29ko 48/2015 Legeak puntualki aldatu

zuen Ingurumenaren arloko fiskalitate neurriak eta tributu eta finantza arloetako beste neurri batzuk ezartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legearen 5. artikulua, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergaren karga-tasei 0,66ko koefizientea aplikatzea 2016ra luzatzeko asmoz.

Horrenbestez, Ingurumenaren arloko fiskalitate neurriak eta tributu eta finantza arloetako beste neurri batzuk ezartzen dituen urriaren 29ko 16/2013 Legea aldatuta egonik, beharrezkoa da tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu hau ematea, bere aldetik, Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautu zituen martxoaren 18 11/2015 Foru Legearen bigarren artikulua aldatzeko, Estatuan unean-unean indarra duten funtsezko arau eta arau formal berak aplika daitezzen Foru Komunitatean, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergari dagokionez.

Horiek horrela, Ekonomia eta Ogasuneko kontseilariak proposatuta, eta Nafarroako Gobernuak 2015eko abenduaren 16an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.** Martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen 2. artikuluko 18. idatz-zatia aldatzea. Haren bidez, energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen dira.

Honako hau izanen da Energia elektrikoaren ekoizpenaren balioaren gaineko zerga, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zerga eta kreditu-erakundeetako gordailuen gaineko zerga arautzen dituen martxoaren 18ko 11/2015 Foru Legearen 2. artikuluko 18. idatz-zatia:

“Hemezortzigarren idatz-zatia. Xedapen iragankor bakarra. 2015 eta 2016 ekitaldietan aplikatu beharreko zerga-tasak.

2015 eta 2016 ekitaldietan, berotegi-efektuko gas fluordunen gaineko zergan aplikatu beharreko zerga-tasak kalkulatzeko, 11. idatz-zatiko tasak 0,66 koefizientearekin biderkatuko dira.

**Azken xedapen bakarra.** Indarra hartzea.

Tributu harmonizazioari buruzko legegintzako foru dekretu honek 2016ko urtarrilaren 1etik aurrera izanen ditu ondorioak.

## **1/2015 Foru Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen dituen.**

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2015eko abenduaren 28an egindako bilkuran, hurrengo erabakia hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko Lege Organikoaren 21. bis artikulua aitortzen dion ahalmena erabiliz, Nafarroako Gobernuak onetsi egin du 1/2015 Foru Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen dituen. Foru lege dekretua 2015eko abenduaren 29ko 257. Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratu zen eta, baliozkotu dezan, Nafarroako Gobernuak Nafarroako Parla-mentuari igorri dio.

Hori horrela, Legebiltzarreko Erregelamenduko 161. artikuluan ezarritakoarekin bat, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, hona ERABAKIA:

**1.** Xedatzea 2016ko urtarrilaren 14ko Osoko Bilkuran eginen direla Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen dituen abenduaren 23ko 1/2015 Foru Lege Dekretua baliozkotzekari edo indargabetzekari buruzko eztabaida eta bozketa.

**2.** Agintzea Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara daitezen erabaki hau eta aipaturiko foru lege dekretua.

Iruñean, 2015eko abenduaren 28an

Lehendakaria: Ainhoa Aznárez Igarza

## **1/2015 Foru Lege Dekretua, abenduaren 23koa, Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2016. urtera luzatzen dituen.**

### ZIOEN AZALPENEA

Nafarroako Administrazio Publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurri jakin batzuen indarraldia 2015. urtera luzatu eta haien montepioetako klase pasiboen pentsioak eguneratu zituen abenduaren 29ko 2/2014 Foru Lege Dekretuaren zioen azalpenean adierazten denez, Nafarroako Parlamentuak, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Administrazio Publi-

ko zerbitzuko langileen arloko presako neurri batzuk onetsi zituen. Aipatu neurriak, funtsean, ekonomia- eta aurrekontuen orduko egoeran oinarriturik hartu ziren, eta horietako gehienek indarraldiari dagokionez, erabaki zen 2012. urtera mugatu zela, eta gerora erabakiko zela hurrengo urteetan luzatuko zen ala ez.

Abenduaren 26ko 25/2012 Foru Legearen bidez, Nafarroako Parlamentuak 2013. urtera luzatu zituen ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen aurreikusitako zenbait neurri. Modu berean, abenduaren 30eko 1/2013 Foru Lege Dekretuaren bidez eta abenduaren 29ko 2/2014 Foru Lege Dekretuaren bidez, neurri berak 2014. urtera eta 2015. urtera luzatu ziren, hurrenez hurren.

Neurri horien indarraldia 2015era luzatzea eragin zuten inguruabarrak aldatu ez direnez, beharrezkoa da 2016. urtera ere luzatzea, eta horretarako, beharrezkoa da lege-mailako arau bat garatzea.

Ildo horretan, Foru Lege Dekretuan jasota dago 2013an, 2014an eta 2015ean indarra izan duten neurri berberen luzapena, salbu eta Osasun Laguntzaren Zerbitzuko "Erabilera berezia" delako modalitateko tarifetan mugak ezartzeko dagokiona, Nafarroako Administrazio publikoetako montepioetako langileak Osasun Sistema Nazionalean sartzeak berarekin dakarrelako kentzea langile horiek orain arte izan duten Osasun Laguntzaren Zerbitzua, Nafarroako Foru Diputazioak 1973ko abuztuaren 24an hartutako Erabakiaren bidez eta abuztuaren 19ko 186/2002 Foru Dekretuaren bidez arautua. Hauek dira aipatutako neurriak:

- Langileek zerbitzu aktiboan segitzeko luzapena etetea.
- Zerbitzuagatiko dietak kentzea.
- Nafarroako Gobernuak kideei eta gainerako goi karguei dagozkien neurriak.

Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobe-teari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua haxe ezartzen du 1. idatz-zatian:

"1. Kasu berezi eta oso presakoetan, Nafarroako Gobernuak behin-behineko legezko xedapenak ematen ahalko ditu, foru lege dekretuaren forma hartuko dutenak. Ezin izanen dira foru lege dekretuaren xede izan lege organiko honetan araututa-

ko nafarren eta Foru Komunitateko erakundeen eskubideen, betebeharren eta askatasunen garapen zuzena, lege organikoaren berrikuntza edota hori garatzeko emandako foru legeena, hauteskunde-legedia eta Nafarroako Aurrekontu Orokorrak”.

Batetik, lehenago deskribatutako inguruabarrak, eta, bestetik, 2016ko urtarrilaren 1ean Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko foru legerik ez izateak, Nafarroako 2016ko Aurrekontu Orokorrei buruzko Foru Lege proiektua tramitatzeko Nafarroako Parlamentuko Mahaiak 2015eko abenduaren 1eko bilkuran onetsi zuen egutegiaren arabera, Legebiltzarreko osoko bilkura 2016ko urtarrilaren 28an egitea aurreikusi baita, beharrezko egiten dute foru lege dekretu bat onestea, kasu berezi eta oso presakoa delako, aipatutako lege organikoaren artikulua eskatzen duen bezala, alegia, langileen arloko presako neurri horiek 2016ko urtarrilaren 1ean hartu behar dutela indarra.

Horregatik guztiagatik, abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikuluan jasotako baimena erabiliz, Lehendakariak, Funtzio Publikoko, Justiziako eta Barneko kontseilariak proposaturik, eta Nafarroako Gobernuak 2015eko

abenduaren 23an egindako bilkuran hartutako erabakiarekin bat etorriz,

DEKRETATU DUT:

**Artikulu bakarra.**– Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak.

2016. urtera luzatzen dira Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen arloko presako neurriak, hots, ekainaren 21eko 13/2012 Foru Legearen 1., 5. eta 8. artikuluetan aurreikusitakoak.

**Azken xedapenetako lehena.**– Nafarroako Parlamentura igortzea.

Foru lege-dekretu hau Nafarroako Parlamentura igorriko da baliozkotu dezan, Nafarroako Foru Eraentza Berrezarri eta Hobetzeari buruzko abuztuaren 10eko 13/1982 Lege Organikoaren 21.bis artikulua 2. idatz-zatian ezarritakoaren arabera.

**Azken xedapenetan bigarrena.**– Indarra hartzea.

Foru lege dekretu hau Nafarroako Aldizkari Ofizialean argitaratuko da, eta 2016ko urtarrilaren 1ean hartuko du indarra.

